

Giza bidean hezi

• LONTXO OIHARTZABAL •

[EHUKO IRAKASLEA]

Azken hamarkadetan zehar gizakion pentsaieran eta teknologiaren eremuan gertatu diren aldaketa eta aurrerapenen eraginez «elkarrekiko auzokide» izatera iritsi gara *lurra* izeneko planeta honetan bizi gare-nok. Auzo bat da gizakion mundu hau. Oso denbora gutxi behar dugu mutur batetik bestera joateko. Berehalako batean izaten dugu han eta hemen gertatutakoaren berri. Eta jakin ere badakigu gure aurrerapena eta erosotasuna beste batzuen lan-esku merkeari zor dizkiogula; lortutakoa ez dela gure ahaleginaren emaitza soila; beste askoren ekarpena ere badela, eta horiekin zordun garela. Zartatu egin dira gure mundu geureko muga estutuak eta mundu zabalerako ateak eta leihoak ireki zaizkigu bete-betean aurrerapen teknologiari esker.

Lanak ditugu, ordea, gure erosotasun geurea ziurtatzen digun lana eta etorkizuna zertxobait mugatzera omen datorren etorkina auzokide bezala onartzeko orduan: asaldatu egin ohi gara, geure-geurea omen dugunetik zertxobait kenduko ote digun beldur gara. Oparo eta eroso bizitzeko hezi eta haziak gara, nonbait, eta gertu eta urrutiko munduko egoera larri eta latzak ikusiagatik ere, kosta egiten zaigu gure soro zabaleko txirrinda mehar bat besteri uztea. Ez gaude, inondik ere, geurea geureak ez direnekin elkarbanatzeko prest, nahiz eta aitortuko dugun geure hori, neurri batean bederen, beste horiei ere zor diegula. Pentsaeraren eta jarrreraren arteko gatazka da hori, gueregeurea dugun gatazka.

«Nerea/zurea» bikotera mugatzen dira gure arteko harremanak geurea omen duguna elkarbanatzerakoan. Eta zure hori onartzen badugu, «zu» delako hori gure artekoa dugulako onartzen dugu maiz; gure senidea, gure laguna, gure senitartekoa, gure auzokidea dugulako gehienetan. Ahaztu egin dugu «nerea/zurea/bestearena» mailaz osatutako kateko hirugarrena. Baina «auzo» omen dugun planeta honetan *bestea* ere hor dago: gu eroso bizi gaitezen bere

lana eta ahalegina hutsaren truke saltzen digun beste hori gu bezalaxekoa da, gu bezain sentibera, beharrak eta gaisotasunak gu bezalaxe beldurtzen dutena, gure oparotasunean parte hartu nahi duena, bere seme-alabentzat etorkizun hobeagoa desiratzten duena. Gu bezalakoxea, baina guk duguna ez duena.

Aspalditik esana digute azterlariak garatutako lurralde aurreratutako ekonomia (oparotasun ekonomikoa, alegia) garapen-bidean aurkitzen direnetakoarekin loturik dagoela, eta estuki loturik gainera, azken lurralde hauetako egoera larriaz atera baitu bere probetxua gure egungo oparotasunak. Honen guztiaren kontzientzia baino ez digute adierazten gure ingurunean sortu eta lanean diharduten hainbat eta hainbat «governuz kanpoko erakundek». Politikariak baino lehenago errealizatu dute hauek «bestearen» egoera larriaren aurrean. Eta, antza denez, agintetza eta ardura politikoa daramaten hautatuak ere hasiak dira, hainbeste giza talderen ekimenek astinduta eta gizarte-gaiak aztertu eta jorratzen dituzten pentsalarien lanaren eraginez, arazoaz kezkatzen eta irtenbideak bilatzen. Ingurune honetan ikusi nahi ni-

tuzke nik behintzat herrialde aurreratu ezberdinetako hezkuntza-egitasmoetan adierazi diren xede eta helburuak.

Izan ere, Europa Elkarteko kide diren herrialdeetan dauden hezkuntzarako egitasmoei begiradatxo bat ematen badiegu, besteak beste *askatasunean* eta *erantzukizunean* hezi eta hazitako giza-kia, *iritzi kritiko*z jokatzeko gauza dena eta *elkartasuna* eta *elkarkidetz*a balio nagusitzat lituzkeena, agertzen zaigu guztietan helburu bezala.

Elkartasunak eta *elkarkidetzak* bestearekiko dugun jarrera adierazten dute: bestearekiko begirunea, besteari edonolako laguntza eskaintzeko prest egotea eta, hala behar denean, benetan eskaintzea. Jarra horrek, bide batez, gure ezagutza-eskema, gure pentsaera guztia horretara egokitu beharra eskatzen du aurrebaldintza moduan. Norberari begira hazi eta hezitakoak, ordea, zailtasun handiak ditu bere pentsaeran bira hori egiteko orduan. Besteak dauden egoeran badaude alferrak eta axolagabeak direlako daudela horrela, eta bere egoera eroso bere ahaleginari baino ez diola zor pentsatuz hazi eta hezi denari ahalegin handia, handiegia agian, eskatzen zaio *kritikoki pentsatuz elkarkidetzarako bidean jar dadila* eskatzen zaionean.

Zailtasun horiek ekidin nahi badira, haurtzaroko hezkuntza-alditik hasi beharko balio eta jarrera horiek lantzen. Elkarkidetzako esperientziak etxetik eta lehen eskolatik ahalbideratu beharko haurrari besteari begira, bestearekiko begirunean ere gara ditzan bere ahalmenak, bere ezagutzak eta bere jarrrak. Balioen eremuko hezkuntzaren

kontu hau ez da, ordea, erraza gaur egungo komunikabide sozialek ezartzen diguten kontsumo huts eta gorriko giroan. Hau, hori eta hura eskuratzeko nahia eta grina sortarazten digute, inolako beharrik izan gabe ere, eguneroko milaka eta milaka iragarkiek. Eta hori haurra moldagarriena den unetik bereetik hasita gainera: ibiltzen hasi baino lehen telebistaren aurrean eserita jartzen den unetik alegia. Kritikoki pentsatzeko inolako gaitasunik ez duenetik ezartzen

zaio bere buruari bakarrik begiratzuz garatzeko eta hazteko bidea.

Hezkuntza-sistemari eskatzen zaiona, aldiz, hori guztiaren aurkako balioak eta jarrrak landu ditzala da, eguneroko ingurune giroarekiko burruka gatazkatsu batean. Hezkuntza-arlorako jartzen diren xede eta helburu horiek benetazkotasunez jartzen direla sinestarazi nahi badigute, hirurehun eta hirurogei eta hamar gradu bira

eskatu beharko komunikabide sozialen eremuko egungo politikari. Ezin baita kontsumokeria hutserako beharrak eta jarrrak eragiten dituzten telebista eta bestelako komunikabide sozialetan aurkezten diren eredu eta iragarkiei inolako mugarik jarri gabe jarraitzea —hauek ere hezi egiten dute, ahaztu ezineko kontua da hau!—, eta aldi berean *elkarkidetzarako* balioak eta jarrrak landu behar direla aldarrikatzea lege eta bestelako erabakien bideetatik. Politikari eta bestelako gizarte-arduradunei ere *kritikoki* pentsatzeko eta jarduteko gaitasuna eskatu beharko zaiela pentsatzen du batek, eskatzen dutena benetan eskatzen dutela sinestuko badie behintzat.



Haurrari kritikoki pentsatzeko inolako gaitasunik ez duenetik ezartzen zaio bere buruari bakarrik begiratzuz garatzeko eta hazteko bidea



Ezin da kontsumokeria hutserako jarrrak eragiten dituzten komunikabide sozialetan aurkezten diren ereduei inolako mugarik jarri gabe jarraitu

Arku atlantikoa

• ALVARO AMANN •

[EUSKO JAURLARITZAKO GARRAIO SAILBURUA]

Europar lehendabiziko aldiz ari da planteatzen Batasun Proiektu bat, baina ez inposizio eta/edo konkista dinamikaren ondorioz, dinamika erraz eta sinple bat aplikatuz baizik, hau da, egitasmo berean esku hartzeko borondatean oinarrituta.

Egitasmo horrek arrakasta izango badu, gizarte atxikimendua, oreka ekonomiko eta territoriala bermatu beharko ditu, hala nola kultur harreman eta adierazpen librea, eta gure ondare historiko eta naturalen aldepena.

Geurea kontinente zaharra da, baina proiektu berri bat dugu, itxaropenez betea, eta gure esku dago haren eraikuntzak belaunaldien arteko elkartasun bermea barne hartzea, nola prozesuan bertan hala azken emaitzan, geure seme-alabek etorkizunean, kontinente zahar eta betiere geldiezin honetan, Europa berri eta aberatsa izan behar dutelako.

Errealitate kolektibo orotan gizarte, kultur eta ekonomi harremanek

Komunikazio Ardatzetan zehar bide egin behar dute, besteak beste trenbidean (ez dezagun ahantz oine-

gitura hori dela lurraldeak ongien egituratzen dituen).

Ongi dakigu hori. Gure lurraldeetatik lehen bezala orain ere mota eta bokazio ezberdinetako bide transeuroparrak igarotzen dira.

Garai batean, Santiago-bidea, adibidez, orduko Europa deprimitu hartako harreman eta bizitasun bide nagusietako bat izan zen.

Guk ez dugu erori behar lurralde deskonektatua izateko arriskuan, txirotasuna baino ez baitakar (eta ez diot hori ekonomiaren ikuspegitik). Komunikazio arloko oinegiturak egu-

neratuta izan behar ditugu, *bolada* batean eguneratuta gainera.

Gaur egun lan zail eta konplexu bat egin behar dugu, baina baita atsegingarria ere. Gure trenbide-esparrua zehaztu behar dugu. Ingurune atlantikoari eman beharreko konponbidearen zati bat izango da, eta ardatz horretan oinarrituta gure lurraldeen barne egituraketa egingo da, oraindik ere ezagutzen ditugun trenbide haiek beste garai batean egin zuten bezala.